

BERRIGARA


36. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1991, urriak 11



**Segi
aldapan
gora!**



**Elosun
Mendiko
ganadu feria**



**Euskara
Zerbitzuak
Beka kaleratu**



**Bittor
Alberdi
polemika**



- *Marko-jartzeak*
- *Posterrak*
- *Litografiak*

Nikon

Banatzaile ofiziala
Barrenkale 35, Tfnoa; 76 58 05

KIÑU

Errebelatu azkarra

*Laborategi
profesional
onenetarikoa*

ESKERRIK ASKO BERGARARROI



Segi,
Igo tipi tapa
euskararen aldapa

KILOMETROAK 91



BEKA DEIALDIA

- **BEKAREN HELBURUA:** Bergaran euskara eta euskal kulturaren bultzatzaile izan direnen historia eta ondarea biltzea.
- **BEKAREN ZENBATEKOA:** 600.000 pzta.

Deialdiaren oinarriak jaso lehenbailehen Udaletxeko Idazkaritzan.



BERGARAKO UDALA

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 760397

Laguntzailea: Bergarako
Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkorobereibar

Erredakzioa:

Eneko Azkarate. Eduardo
Mendibil

Maketazioa:

Eneko Azkarate. Eduardo
Mendibil

**Publizitatea eta
harpidetzak:**

Aitor Aranzabal, Ifnaki
Arietaleaniz eta Eburne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola
eta Juan Martin Elempuru

Kolaboratzaileak:

J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkorobereibar, Josune Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa Bikuña

Argazki laborategia:

A. Gallastegi, B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares, Txomin Retolaza, Kifu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

Banaketa: Txantxangorri
Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Legu gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Los timadores dituzue goiko horiek eta ostegunean Bergaran izango dira Novedades Aretoan arratsaldeko 7.30etan. Bergarako Kultur Ekin-tzak, udako parentesiaren ondoren, zine-klub emanaldiei hasiera eman die berriro aste honetan. Ostegunero filme interesgarriak ikusteko aukera paregabea izango dugu.

LARUNBATA
12

- Kontzertuak:
- Durangoko futbol zelaian *Tahures Zurdos* 23.00etan.
- Soraluzeko Gaztetxean *Angelus* 22etan.
- Elosuko ganadu feria:
- Goizeko 9etatik trikitilariak, Herri Kiroiak eta bertsolariak.
- Saskibaloia:
- Labegarrietako Kiroldegian 16.00etatik aurrera Bergara - Ordizia eta Bergara-Hernani (gizonezkoak)

IGANDEA
13

- Kontzertua:
- Bergarako Gaztetxean *Citizen Fish*.
- Saskibaloia:
- Kiroldegian 12.00tik aurrera Bergara-Orio eta Bergara- Laneder (emakumezkoak)

OSTEGUNA
17


- Zine-Kluba:
- Novedades Aretoan *Los timadores* filmea. 19.30etan.

FARMAZIAK



- 12 Guallar
- 13 Guallar
- 14 Estella
- 15 Mozos
- 16 Camacho/Gauetz: Morales(Arrasaten)
- 17 Puy / Gauetz: Azcoaga (Arrasaten)
- 18 Guallar / Gauetz: Corcuera (Arrasaten)

ZINEA



*Agarralo como
puedas 2 1/2*

- LARUNBATA: 5, 7.30 eta 10.30etan.
- IGANDEA: 5, 7.30 eta 10.15etan.
- ASTELEHENA: 7.30etan

*Polt de
guarderia*

- IGANDEA: Goizeko 11.30etan.

OGIA



Mizpildi

KIZKUR



**Heapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

KAFETEGIA



Beheko Taberna

Menestra eta konejua dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ONENA TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Salon de belleza
- ✓ Bio Solarium

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

PEÑALBA

- Loteria
- Oparigaiak

Irala 1, Tfnoa: 76 10 49
BERGARA

Adi irakurle!!

Orain dela bi asteko Berrigarar esan bezala, joan den igandean ale berezia kaleratu genuen eta ez genizuen etxera eraman.

Jaso ez bazenuen, jakizu *oraindak ale mordoxka bat ditugula gordeta* igandean hartzerik izan ez zenutenontzat.

Berrigarara etorri eta emango dizugu.

Jaso zenutenoi berriz *eskerrik beroenak* egin zeniguten harreragatik.

Auzo alkateari buruz



Berrigarara bitartez jakin du O-sintxuko herriak datozen lau urtetarako auzo alkatea zein izango den. Honen aurrean orain arteko herri batzordeak zera salatu nahi du:

1.- Herritarrei inongo aukerarik eman gabe, Alkate Jaunak bere kabuz izendatu du ordezkari berria, zoritxarrez orain lau urte zabalduetako bide baliogarria itxiz.

2.- Era honetan zalantzan jarzen dugu, auzoaren borondateak

lekurik izango duen Udaletxean edo alderantziz, Udalaren nahiak soilik beteko dituen figura bat izango den auzo alkatea.

3.- Garbi utzi nahi dugu ez dugula ezer aukeratutako pertsonaren aurka. Ez da gutxiagorik ere. Aurretik aipatutako salaketetan oinarritzen dugu idazki hau, eta ez beste ezertan.

OSINTXU HERRI BATZORDE OHIA

Begarako E.H.E

Tiira ba!



□ Eskultura

Eusko Jaurlaritzaren Gure Artea saria irabazi berri duen *Iosu Sarasua* eskultore azpeitiarrak bere zenbait lan erakusgai izango ditu Kultur Etxean urriaren 11tik 20ra bitartean.

□ Ska-jaialdia

Datorren ostiralean, hilak 18, gaueko 11tan ska-jaialdi bat izango da *Tribiston The Selecter* eta *Banana Boat* taldeekin.

□ Nafarroa Oinez

Udal Euskara Zerbitzuak eta *Aranzadi Ikastolak* autobusak antolatuta dituzte datorren igandean, hilak 20, *Atarrabian* ospatuko den *Nafarroa Oinezera* joateko. Irteera goizeko 8.30etan izango da eta buelta 7etan. Izena emateko batera zein bestera jo dezakezue osteguna baino lehen.



Elosuko feria

Bihar larunbata, hilak 12, *Elosu auzoak* bere urteroko ganadu feria ospatuko du. Goizeko 9-etan emango zaio hasiera eta ordubatean sail ezberdinetako partehartzaile hoberenei sariak banatuko zaizkie. Ordu erdi beranduago *J.L. Gorrotxategi* eta *Sebastian Lizaso* bertsolariak arituko dira bertotan. Arratsaldean ere ekital-

diak izango dira; 5etan harrijasotzaileak, *Goenatxo II.ak*, 200 kiloko kubikoarekin, 6 minutuko tanda batean bere marka hobetzen ahaleginduko delarik. Ondoren, *Arrospide* eta *Olasagasti* aizkolariek eskeiniko dute saioa eta 6 t'erdietan, bertsolariak berriz ere. Egun osoan *Laja* eta *Landakanda* giroa alaitzen izango dira.

□ Hirugarrenak

Edurne Arzelus eta *Eduardo Muruamendiaraz* bergarar bikoteak hirugarren postua lortu zuen joan den larunbatean *Donostiako Konstituzio Plazan* jokaturako *Dantza Askatuko Txapelketan*.

□ Elgeta


Urriaren 7tik 17ra bitartean *Elgetako Udalak* egingo dituen hamar batzorde informatiboetan, besteak beste, *Eibarren* eta *Elgetaren* arteko telegrafo sarea jartzea eta igerilekuen proiektua aztertuko dira.

□ Erakusketa

Oñatiko *Etxe-Aundi* jatetxean urriaren 31ra arte *J.Ramon Gantxegi* eta *Xabier de Zerio* bergararren margoak eta eskulturak izango dira.

Bekak eta dirulaguntzak

Bergarako Udal Euskara Zerbitzuak 600.000 pta.ko beka emango du herrian euskara edo euskal kulturaren bultzatzaile izan direnen historia aztertzeko. Ikerketa honen helburua gerra aurreko ikastola, euskal kantagintza, antzerkigintza, euskalduntze-alfabetatzea etab.-en historia ikertzea litzateke. Beka eskatzeko oinarriak Udaleko Idazkaritzan jaso daitezke. Euskara Zerbitzuak beste 400.000 pta. banatuko ditu euskararen erabilpena bultzatzen duten ikastetxeen artean.



Siberian - husky's
arrasako txakurra
salgai.



Parasitogabetua
Txertatua
Perigrigiduna
Tfnoa: 76 14 79

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

ORAZI
Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

K Txinpartak

Balorazioa egiteko ordua...

✓ 250 autobus eta 14.000-17.000 kotxe inguru kontatu ziren igandean egokitutako aparkalekue-tan.

✓ Donostiaraino joan zaigu igandean zozke-tatu zen *Renault Clia*o.

✓ *Marino Lejarreta, Tapia* soinu-jolea, *Lopez Rekarte, Karlos Argiñano, Txirri* eta *Mirri* pailazoak, *Imanol Urbieta* musikagilea..., ikusi genituen Bergaran bildutako 80.000 lagun-en artean.

✓ Kilometroetarako enkargatu zen edari eta janariaren zati haundiena saldu egin zen. Sobran geratu zirenak, likorrak, koñakak, etab, sozieda-deetara salduko dira kostu prezioan. Besteak bu-eltatu egingo dira.

Oilaskoak gutxi saltzen zirela ikusita, arratsal-derako antolatzaileek erdiprezioan jarri zituzten.

✓ Antolatzaileek herriko taberna batzuk igan-dean izan zuten "jokaera lotsagarria" salatu dute. Normalean bokadilorik egiten ez duten taberna batzuek egun horretan saldu egin zituzten. Badira, taberna kanpoan barra jarri zutenak ere. Denak ez badira ere, batzuk, hiru txakur haundi eman omen dute laguntza bezala Kilometroetarako.

✓ Hil bukaera baino lehen herri bazkaria eskei-niko dute antolatzaileek Kilometroak egunean lan-nean jardun zuten herritarrentzat.



Garbitze lanetan

Kilometroak zirela eta joan den asteburuan Ber-garan izan genuen jen-detza izugarriak aztar-nak utzi zituen. Herriko kaleak zikinkeriaz beteta aurkitu genituen aste-lehen goizean: plastikozko edalontziz eta kristalez-ko botilaz beteta. Udale-ko garbitzaileak eta Zu-marraga-Urretxuko ka-leak garbitzen dituen Garbile enpresa pribatua jo eta ke aritu dira aste osoan. Astelehenean ba-karrik 24 metro kubiko

zabor batu zituzten.

Garbile enpresa pri-batuak, Bergarako garbi-keta hartu nahian, lana musutruk egin zuen. Izan ere, Bergarako Udala joan deneko aspaldian, dabil kaleen garbiketaz arduratuko den enpresa bat kontratatuko ote du-en eta *Garbilek*, demos-trazio modura dohainik lan egin zuen.

Gustora utzi ote ditu gure agintariak egindako lanarekin?

TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA



**KONDE
PANADEROKUA**
Burdiñate 1
BERGARA

ayastury


Barrenkale 30
Tfnoa: 76 11 31
BERGARA

Jantzidenda

Politikoak Bergaran



Victoriano Gallastegi,
Eli Galdos,
Imanol Bolinaga
eta Mari Carmen Garmendia
(Hizkuntza Politikarako
Idazkari Nagusia)
Maria Victoriaren ondoan.



Mari Carmen Garmendia eta Iñazio
Arregi.



Joxeaustin Arrieta eta Iñigo
Iruin (HB-ko Mahai
Nazionalakoak) eta erdian
Inaxio Oliveri (EA-ko
Idazkari Orokorra)

Eritziak eritzi

Mari Carmen Garmendia
(Hizkuntza Politikarako Idazkari
Nagusia)

"Lehendakariaren izenean etorri naiz. Zortzi kilometroak egin eta oso paraje ederrak ikusi ditut. Gainera ondo saiatu zarete lokatzarik izan ez zedin zorua ematen. Ikusten da bergararrak latz saiatu zaretela hau antolatzen".

Eli Galdos
(Gipuzkoako Diputatu Nagusia)

"Zirkuitoa oso polita iruditu zait, ez Oñatikoa bezain polita, baina oso ederra. Gainera bat ere lokatza barik, oso ondo gertatutakoa. Zorionak, ondo antolatu duzue eta. Nik neuk Diputatu Nagusi bezala milioi bat eman dut".

Inaxio Oliveri
(Hezkuntza Sailburu ohia)

"Jaurlaritzan eman ditugun zortzi hilabeteetan hezkuntza sistema propioa finkatzen saiatu gara. Ez dut uste Buesak hori egingo duenik, azken finean Madriletik agintzen dituzten arauak eta legeak hemen jarriko bait dituzte indarrean".

Gizon Emakume



Irala 2 / Barrenkale 35



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

CAMACHO

DROGERIA
USAINDEGIA

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA


GOIERRI

Autogidarien eskola

Fralskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA



Iñazio Arregi *

Bederatzi hilabete eta egun bat

Izenburuan erabili du-
dan esaldia, epaile ba-
ten erabakia izan dai-
tekeen esaldia, egoki asko
datorkio igaro berri den
Kilometroak 91 eguneko
antolakuntzari, izan ere,
bederatzi hilabete lan
eta nekeak egun batetan
epaitzen dira.

Egun horretan ikusten
da ze lan egin duten an-
tolatzaileek; horren ara-
bera emango dute gero
bere epaia bai komu-
nikabideek, bai herrita-
rrek. Bakoitzak berea. Ni
ere nere balorazioa ema-
tera natorkizue.

Esan dezadan harrota-
sunez, bederatzi hilabe-
tetako lanak uzta ezin ho-
bea eman digula urriaren
6an. Kilometrotako edizio
gehienak ezaugarriren
batekin pasatzen dira his-
toriaren orrietara. Bata,
aparkaleku arazoengatik;
bestea trafiko arazoenga-
tik edo eguraldiagatik.
Gurea, ez da beharbada
gogoratua izango, nahi
den aldetik begiratuta ere,
ez dagoelako hutsunerik
edo okerrik. Balorazio
hoberik ezin da izan.

Baina bakoitzari berea
zor zaionez, garbi azaldu
beharko dut guzti honen
meritua ez dela ikastolena
bakarrik, herri osoarena
baizik eta bereziki parte
zuzena izan duten herri-
tarrena. Euren laguntza
ezinbestekoa izan da.

Luzea izango litzateke
laguntzaile guztien ze-
rrenda egitea, baina ezin
izango dugu aipatu gabe
utzi Bergarako Udalak eta
Foru Aldundiak eskeini
diguten laguntza, euri
esker burutu ahal izan zen
zirkuitoa eta bertara iris-
teko behar ziren aparka-
leku eta bideak. Gogoan
daukat beste maila batean,
Deba Garaiko Gurutze
Gorriko eta DYako ema-
kume eta gizonak. Luze-
gia litzateke laguntzaile
guztien zerrenda, baina
garbi dago, sekula baino
gehiago, herri osoaren la-
na eskeini eta ikusi ahal
izan zela urriak 6an. Ho-
rregatik eta guztioi, es-
kerrikasko eta zorio-
nak!

* Iñazio Arregi Aranzadi Ikas-
tolako Zuzendaria da.



Goizeko 9.30etan eman zitzaion hasiera Kilometroak 91-ri. Euipean Eli Galdosek eta Antonio Campos, Eus-
kadiko Ikastolen Konfederazioko Presidenteak, ebaki
zuten zinta.



Megafonia zerbitzutik minutuero informatu
gintuzten. Euskadi Irratiko profesionalak
mikrofono aurrean.

Igo tipi tapa
euskararen
aldapa.
Zurruga
gainera
heldu eta
gero San
Martineruntz
jeisten.



ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



Horiek dittun
pintak
horiek!!
Sukaldariak
ala
koralekoak?



Gaztetxoenek ez zuten hutsik egin.



Zatozte, zatozte denok Berrigarraren erreinura.



Datorren urterako konprak egiten, Kilometroak-eko dendetan ilara luzeak.

Herriak diño



Unai Colinas
19 urte, ikaslea

Oso ondo antolatuta egon da aurtengo Kilometroak. Nik ez nuen lanik egin, kuadrilakoak ez ginelako apuntatu.



Maite Maiztegi
28 urte, UNEDeko irakaslea

Antolaketa oso ona izan zen. Ni ez nintzen lanean ibili umea zaindu behar nuelako, baina kuadrilakoak bai eta kontatu didatenez, lehertuta bukatu zuten.



Maritxu Berasategi
60 urte, etxekoandrea

Seminariko dendan egon nintzen lanean eta asko saldu genuen. Antolaketa ezin hobea.

ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak
Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

P. MANSO

Optika

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

Irizar Ibilbidea 2, Tfnoa; 76 27 86

Aritzetako San Migel

1.050. urteko ermita

Gipuzkoa osoan ez daude horren urte zaharreko dokumentu edo datu gehiegirik. Tartean, bat San Migel ermitarena; eta gehiago oraindik: ez zan urte horretan jaioa, bizitzen zetorrena baizik. Noizkoa ote bere sorrera?

San Juan de la Peñako Monastegian azaltzen zaigu urte horrekin, eta bere idazkiko lerroen esanahia honelaxe irakurri beharko litzateke: Aritzetako San Migel Monastegian Bergara izeneko lur bat dago, eta hau Santxo Jaunarena da. Honek lur eta bere sagardi on horiek *San Juan de la Peñako* Monastegia-ri ematen dizkio. Eliz honen izenean hartzeko dagoena Ziano da, izen haundiko praillea eta esandako Santxoren anaia.

Hots! Aritzetarekin batera Bergara izena ere lehendabizikoz azaltzen da, bañan bere izatea eta mugak ez ziran gaurkoaren modukoak. Gaur, San Migel Bergaran dago; orain mila urte inguru Bergara San Migelen lur bat zen.

Eta oraindik beste xehetasun bat: Monastegi

izenak ez du esan nahi bertan prailleak edo monjak bizi zirenik, bere lurren harremanak eta primiziak jaun batek jasotzen zituela baizik.

San Migeleko erretabloa

Frantseztian, hainbeste gauza bezela, bere eleiza ere deseginda gelditu zan. Orain, zatirik zaharrena abside inguru eta bere gañak dira, gotiko arrastuarekin. Daukan erretablua Santa Luzia ermitatik ekarritakoa omen da, ahoz-ahoz etorri zaigun esanetan, eta Igokundearen irudiakin. Harritzekoa, berriz, Santa Barbararen irudia da; berez San Migelena izanik, buruaren eta besoaren ipintzeko moduak "operazio" baten bidez aldatu zaizkio, gañera oñazpian zeukan iransugeari burua moztu, etab. eta gaur Santa Barbara bezela bihurtua erakusten da. Bergararrak aspalditik hartu izan dute San Migelen ermita hodeien eta ekaitzen kontrako babestzaile bezela.

Imanol Sorondo



1.050. urteko dokumentuek diotenez bazan garai haretan Aritzetako San Migel izeneko ermita bat. Gaur, San Migel Bergaran badago ere, orain mila urte inguru Bergara San Migelen lur bat zen. Aritzetako San Migeleko ermita urteetan izan da bergararentzat hodeien eta ekaitzen kontrako babestzaile. Behean, eslumaldean, San Pedroko eleizan dagoen San Migelen erretabloa.

MARKIEGI Automobilak

**Automobil eta kamioien
karrozeria**

Leizeaga 1 (San Lorentzo Pol/Ind.)
Tfnoa: 76 35 09 BERGARA



TOKI-ONA

Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak -
Txitxizotzak-Kazolatxoak-
Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

Guardasola

Joseba Lezeta

Euri tantarik ikusteke uda osoa pasatuta gero, azken hilabete honetan trumoi zartadak eta hodei zaparradak izan dira nagusi gure kaleetan. Eta hauekin batera ganbaran zintzilik, hautsez beteta neukan guardasola zabaldu behar izan dut. Punta gabeko guardasola, mutur txatoari eta heldulekuari bultz egin alde banatatik eta batzen den horietakoa.

Aititak ere zabaldu dituzte eurenak, punta zorrotzdunak noski, eta segituan etorri zait gogora multikotako kontuak. Sarritan galtzen genituen guardasol beltzak, gizonezkooi ez zaigu beste kolore aukerarik eskaini, baina ondo aprobetxatu ondoren. Esgrima saioak ere izaten ziren, zapatu arratsaldean D'Artagnan, Porthos edo Aramix-en abenturak *Primera Cadenan* ikusi eta iluntzeko meza hasi bitartean. Xabalina jaurtiketak ere ensaiatu genituen Olaranen zelaian, nahiz eta hamar metro baino haruntzago ez bota. Gure aldrebeskeriak frontoian edo




Baia gehien gustatzen zitzaidana berna erdirainoko putzuan sartu eta teilatu bazterretik indarrez jausten zen itoginaren azpian jartzea izaten zen

autobusean ahaztuta lagatakoan bukatzen ziren.

Guardasolak bazeukan beste "bentaja" bat. Udazken eta negu partean... astero berria. Eskolara joan eta denok ate ondoan jarritako ontzian uztea agintzen ziguten. Kanporakoan berriz, mango denak eta lotzeko goman hariarekin egindako seinale guztiak, lehenengo harrapatutakoa hartu. Kanpotik ederra, baina herdoitutako bariladun guardasolarekin etxera, bokadilo bila. Amaren demanda entzun eta jolasera.

Baina gehien gustatzen zitzaidana -inor begira ez balego orain ere egingo nuke- berna erdirainoko putzuan sartu eta teilatu bazterretik indarrez jausten zen itoginaren azpian jartzea izaten zen. Guardasola zabaldu eta urak tela beltza ia apurtuaz ateratzen duen zarata entzun, kuxkurtuta, sorbaldak altxatuaz, irribarrea ezpaintedela. Udazkena ailegatzeko desiratzen nago.

BERGARA BOLTSAK



✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.

✓ Deneitariko konfekzio industriala

✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

N
i
n
i
k
a

Loreak mundu osoan



FLEUROP

INTERFLORA

L
r
a
d
e
n
d
a

edergai

**LAMINA, MOLDURA
ETA OLEOAK.**

BIDEKURUTZETA 38
BERGARA Tfnoa: 76 31 03



**ETXE-
-AUNDI**

Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

**BERGARA
Karrozeria**

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31 Zubleta 46
Bergara

Zer iruditzen zaizu tabernek komunak ixteko duten joera?



Marisabel Gantxegi
44 urte, etxeoandrea

Gaizki, komunak beti zabalik egon behar dira.



Jose Joaquín Solís
54 urte, taxista

Oso gaizki, tabernetan ibiltzen den jendearentzat komunak beharrezkoak direlako.



Juanjo Montero
24 urte, ikaslea

Gaizki, bestela kalean txixa egin behar duzu eta hori ezin daiteke, oso zikina delako.



Mari Carmen Iñarra
58 urte, etxeoandrea

Zabalik egon beharko lirateke beti eta gainera hobeto zainduak.

MABER GIMNASIA - ETXEA

Kulturismoa

Mantenimendu gimnasia eta zuzenketazkoa

Edozein kirol egiteko pisu-sistema egokiak

Sasoian egoteko behar dituzun makina eta pisu mota guztiak

URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA!!

Zuzendaritza: MARTIN BERROYA EGAÑA

(Euskadiko Kulturismo Txapelduna)

Koldo Elizalde 16, Behea

Tfnoa: 76 56 17

BERGARA



Droga eta biolentzia

Sant Cosme, Villaverde, Malvarrosa... auzo eta herri hauen izenak behin eta berriz entzun ahal izan dira azken egun hauetan, bertan droga eta droga trafikatuaren aurkako ekintza gogorak burutu dituztelako. Biolentziaz beteriko ekintzak izan dira, eta sektore desberdinetatik gogor kritikatuak ere. Jende gehiena adoz egon da patrulla horien jarrera salatzerakoan, eta pasa egin direla esan genezake. Baina, gertatu den guztiak eta gertatuko den guztiak zerbait esan nahi du eta horretaz pentsatu egin behar da: gizarteak drogaren aurkako baliabideak eskatzen dituela, erreklamatzeko dituela.

Eta, eskaera horren truke zer jasotzen du? «Ley de Seguridad Ciudadana» deituriko lege polemikoa, Corcuera lege polemikoa, pasa den ostegunean Kongresuan eztabaidatzen hasi zena.

Konstituzionala den, ala ez, bakoitzak esan behar du, baina patrulla horien jarrerak salatu dituzte sektore berberak ez dute uste lege horrek drogaren arazoa konponduko duenik.

Beraz, ez gara harrirituko San Cosme, Malvarrosa, edo Villaverden gertatutakoa han edo hemen errepikatzen bada

Ane Miren Lizarralde



Ezkertiarren jarduna

Ekialdeko estatu sozialisten erorketak, Lenin-en jarraitzaileetarikoz batzuk eraikitako esturktura burokratikoaren leherketak, alegia, gure burua ezkertiatzat hartu izan dugunok aita-ama ideologikorik gabe utzi gaituela pentsarazi lezakeelakoan nago.

Hori horrela izanik ere, erabat oker dabilta Marx eta Engelsen hilobien gainean dantza batean ezkerreko ideia ospetsu eta garbien heriotza ospatzen ari diren zenbaitzuk, ikusutakoa ikusirik ez baita horretarako inongo arrazoirik ikusten.

Sozialismoaren izenean gauzatutako lehen esperientzia okerra izanda ere, askatasun falta eta burokraziaren nagusitasuna guztiz deitoragarriak izanik, Karl Marxek sortutako historiaren esplikazioa lurperatu dezakeen teoria berririk ez da nabarmentzen. Ez gaur eta hemen behintzat.

Ekialdeko porrotaz euren argudio falta betetzen saiatu direnak har dezatela orain edozein eguneko egunkari bat eta aztertu egungo errealtatea. Ez al da, bada, pobrezia munduan?, ez al dute emakumeak gizonen munduan esplotatuenak izaten jarraitzen?; ez al ditu langileak ordaintzen kapitalaren plusbalia ikaragarriak?

Erantzunik gabeko galderok, berez, justifikatzen dute ezkerren bizitza. Inoiz baino garbiago gainera!

Martin Garitano

ERREKI

Erretegia
Berezitasunak:
Bixigua eta txuleta

Fraiskozuri Eparantza
Tfnoa: 76 38 51

GISASOLA BURDINDEGIA

" Erratzu "

Pedro Deuna 8,

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

HALTZARI

Fagor altzarien
banatzailea.
Sukalderako altzariak

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57 BERGARA

Bidekurutzeta 6, behea
Tfnoa: 76 57 68
BERGARA

droa
boutique

Zeuk galde



35. Nola jakin daiteke arropa batek tintea botako duen?

Badago arropak tintea botako duten ala ez konprobatzeko modu erraz bat. Horretarako, garbitu aurretik, egin ezazu aproba gero bistara geratuko ez den toki batetan, dobladilloan esate baterako.

Busti ezazu guata zati bat uretan eta jarri tela gainean eta eduki 5 minutu inguru. Guata arroparen kolorekoa jartzen bada, tintea botako duen seinale.

36. Nola ateratzen zaie briloa kobrezko ontziei?

Badaude kobreaki briloa ateratzeko produktuak. Dena dela zeuk ere prestatu dezakezu. Horretarako nahiko duzu gatza, ozipina eta irina nahastea, hiruretatik kantidade berdinak.

□ Hori bai sasoia!

Orain pare bat aste I. Donostia-Donibane Lohitzun triatloi proban izan ziren 225 partehartzaileen artean bergarar bat ere izan genuen. Javi Arevalillok 9 ordu eta minutu bat behar izan zituen igerian 3 Km. (itsasoaren egoera txarragatik 800 metrotan murriztu behar izan zen igeri proba), beste 135 bizikleta gainean eta azkenik 30 korrikan egiteko. Estatuan inoiz jokatu den probarik gogorrena izan genuen honako hau eta Arevalillok burutu duen denboraldi onari amaiera ezin hobea eman zion proba amaitu eta, bide batez, denbora ona lortuz.

Orain Arevalillok honelako proba bat korritzeak exijitzen duen esfortzutik deskantsatzea baino ez du nahi, indarberritu eta datorren denboraldian pentsatzen hasteko



□ Irrati zaleak

Irailaren 28 eta 29aren artean Bergarako Surra Irrati Elkarteko 20 bat lagun, urtero bezala, Agerreburura joan zitzaizkigun urteko egunik luzeenean 25 orduz, etengabe, ahalik eta konexio gehien egiteko asmoz. Guztira 1376 konexio ezberdin egin zituzten eta, besteak beste, Austria, Alemania, Kanarias edota Palmarekin hitzegitea lortu zuten. Joan den igandean ere hor ibili ziren, Kilometroak-eko enlaze bezala, base eta aparkaleku ezberdinen artean ezinbesteko lana burutzen, sortzen ziren arazoei irtenbidea eman nahian.

IZARRA

Ileapaindegia

Mistoa



San Pedro 23 Tfnoa: 762972

INFERNUKUA TABERNA

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49



□ **Urrezko eztaiak**

Joan den hilaren 29an *Joakin Etxaniz* eta *Juana Zugastik* beraien urrezko eztaiak ospatu zituzten familiakoekin batera. Goizean meza entzun Olatzen eta jarraian 50 bat lagunek bazkaria izan zuten Loiolako Kirurin. Hone-lako ospakizun berezietan gertatzen den bezala giroa ezin hobea eta anfitrioiak orain 50 urte bezain zoriontsu. Orduan bezala, oraingoan ere bidaiatxo bat egin nahi izan zuten eta Palmara joan zitzaizkigun. Bueltan, platinozko eztaien bila...




Zertan dihardute ba?

DANI SANTOS



Kazetaritzan lizentziaturiko 24 urteko bergarar hau abuztuan European izan genuen *free-lance* bezala. *Danik* Europa Ekialdeko herrialdeei buruz bere kontu prestatzen ari den erreportaiak amaitu bezain laister saltzeari ekingo dio.

IÑAKI MOZOS



Eusko Ikaskuntzaren XI. Kongresuaren barne 36 urteko bergarar honek asteartean hitzaldi bat eman zuen "Euskal Antzerti folklorikoa Europako herri tradizioen adierazpen bezala" titulupean.

Tfnoa: 76 00 50 **ARGAZKIAK ORDUBETEAN** Tfnoa: 76 00 50

Taberna kafetegia

EHIZTARIAK / LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubleta 26, BERGARA

Hau dok barreguria !!

Sasoi baten Altos Hornos fabrika ikatz lapurretan eittia oso normala ei zan, eta eitten etzebana tontotzat hartzen ei zan. Behin serenuak lapurra harra-patzen dau "in fraganti" ikatzpillan, bertako langile ondrau eta eza-guna bera.

- Baiña fulano, hi be lapurretan?

- Hara -kontsetatzen dotsa larri eta estu- goiko pisukuak pe harra-patzen dabela, behekuak pe bai, nere andriak etxostak bizi izaten be lagatzen.

Ba ei zan fabrika horretan erderaz tautik pe etzekixen andra mon-drauetar bat, garbittasun lanetan ibiltzen zana. Behin bi erdeldunen arteko demanda zarata-tsu bat entzutia tokau jakon parian. Gero hola kontatzen ei eban ikusit-takoa:

- Harek esaten zotsan esatekuak... Jesus!

- Zer esaten zotsan ba?

- Karboon!, karboon!, ikatza harrapauko eban itxuria ero...

Oin baiño garbixaua zeuan izan be ibaixa, eta badoia gure peskarixa kañia botatzera. Txixaria jarri zotsan amuan, baiña anborrañak paso.

"Aber momorrua ja-rritta". Baiña arraiñak ezta begiratu be.

"Ganau-bihotza be gustatzen jakue, ba". Baiña ezta pikatzeko kiña-daik pe. Azkenian arrain litxarrero harekin erne-gauta, etara poltsikotik pezetia eta zera esan zotsen haserre:

- Aiba, hartu pezetia eta erosi nahi dozuena.

J.M. Elexpuru

Antzinako kontuak

Bergararen sorrera

Bergara izena lehenengo aldiz 1.050. urteko agiri baten agertzen da. Bertan esaten da Don Sancho izeneko batek Aragoiko San Juan de la Peñako monastegiari donatzen zizkiola Bergarako lurretan, Aritzetako San Migel inguruan zeuzkan sagasti batzuk. Esan beharra dago bai Aragoi eta bai Gipuzkoa Nafarroako erreinukoak zirela garai horretan.

Ikusten denez Aritzetako San Migel, inguru honetako elizarik zaharrenetakoa da, Uzarragako San Juanekin batera. Ez dakiguna da garai honetan orain Bergara erdia den lurretan etxe multzorik bazegoen ala ez.

Gipuzkoa Gaztelako erreinura pasa zen 1.200. urtean. Handik urte batzuetara, 1.268an eman zion Bergarari Alfonso Jakintsuak, Gaztelako erregeak "hiribildu" (Villa) kategoria. Sorrera dekretuak dioenez, "...habemos de facer una puebla en



Vergara, e señaladamente en aquel lugar que dicen Ariznoa, a que ponemos nombre de Villanueva..."

Dirudienez, inguru guztiari deitzen zitzaion Bergara, eta Ariznoa, berriz, orain erdigunea denari. "San Pedro de Ariznoa" bezala izendatzen da gure eliza haundia ere.

"Villanueva" izena ezarri zion erregeak Bergarari baina izen berriak ez zuen sustrairik bota, eta galdu egin zen berehala. Ostera, "Mondragon", "Placencia", "Villarreal"..., garai berdintsuko bataioak, iraun egin dute gaur arte.

J.M. Elexpuru

ITXASMENDI

Taberna

Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

EDEL

tapizdenda

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltzak,
edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

ARKUPE

Taberna

San Lorentzo 23, Tfnoa: 76 23 44
BERGARA



alga

Usaindegia.

Eder-gela. Oparigaiak.

IBARGARAI 10 Tfnoa: 76 00 85

Carmen Gárate

Plastikoak eta narruzko gauzak

Bidekurutzeta Tfnoa: 76 13 23
BERGARA

Gipuzkoako Igerilari Federazioko presidentea

Bittor Alberdi

"Euskadiko Federazioan aldaketa beharrezkoa da"

Zer gertatzen da Euskadiko Federazioan?


- Ba Jose Mari Yaniz presidenteak nahi duena egiten duela; estatutuek botere gehiegi ematen diote eta berari gustatzen ez zaion zerbait edo norbait agertzen bada berehala kentzen du paretik. Gipuzkoako entrenadore batek abuztuan egin zituen deklarazio batzuetan, Izarrako Errendimendu Altuko Zentrua ixteko zorioan zegoela salatu zuen. Jestio ekonomikoa desastre hutsa izan da.

- Eta kirol emaitzak?

- Dena ganora gutxi-ekin eraman izan da. Hango entrenadoreak postua utzi behar izan zuenean Euskadiko Federazioko presidenteak ere bere laguntxo bat jarri nahi izan zuen hor eta guk ezetz. Guzti horren-egatik zentsura mozioa aurkeztuko dugu datorren asteko Asanblada Orokorrean; Gipuzkoatik % 90ak firmatu dugu, Bizkaiatik % 50ak eta arabarrak denak.

- Federazio ezberdinen arteko erlazioak onak dira, beraz...

- Onak dira bai, eta naparrekin ere adibidez harreman oso onak ditugu. Lehendakariak, bere



aldetik, oso hartu eman txarrak ditu naparrekin eta guk hori ez dugu onartzen.

- Mozio hori irabaziz gero, zeu aurkeztuko zara Euskadiko presidente izateko?

- Ezin dut. Gipuzkoako lehendakari izateak nahikoa lan eta gehiago ematen dit; gerta liteke, honek dimitidu eta berria sartu bitartean, behar bada ni egotea. Baina ez nago prest presidente izateko betiko.

- Zer aldatuko zenuke bai Gipuzkoa eta bai

Euskadiko Federazioan?

-Gipuzkoakoa zeharo aldatu dugu, funtzionamendua batez ere. Euskadikoak Gipuzkoako Federazioak duen funtzionamendua bezain ona izan dezala gustatuko litzaidake, besterik ez.

- Bergarara mugatuz nola ikusten duzu igeriketaren etorkizuna?

- Fitxa aldetik, kantidadade aldetik, hazkunde nabaria eman da eta kalidade aldetik ere maila ona lortu da, Euskadi mailan ondo ikusitako elkarte bat gara.

Uretan

Nekeza izango da bergarar igerilaririk Bartzelonako Olinpiadetan ikusi ahal izatea. Hastear dagoen 91-92 denboraldian Bergara Igerilari Elkarteko 50 bat igerilarien helburu nagusia iaz lortutako emaitza onak gutxienez errepikatzea litzateke; Jesus Jauregik jadanik 20 urtez zuzentzen duen taldea hirugarrena izan genuen Gipuzkoako Txapelketan, eta bostgarrena Euskadikoan. Hiru milioi t'erdiko presupuestoa-ekin eta batez ere igerilarien gurasoen laguntzaz aurrera doan Bergara Igeri Elkartek erronka berri bati ere egin nahi dio aurre, erretiratuta eta erretiratzeko dauden igerilarietara uretan jarraitzeko irtenbide berria eskeintzea hain zuzen; Elkartea, Bergaran lan egiten duen argentinotarekin harremanetan jarri da waterpolo taldea osatzeko eta bestalde, zenbaitzuk korritu izan dute dagoeneko triatloi probaren bat. Hori bai, Bittor Alberdik garbi utzi nahi du igerian egiteko sasoiaren diren igerian jarraituko dutela.

**A
R
R
A
N
O**

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

independentzia!

MANIFESTAZIOA
Urriak 12
BILBON

HERRI BATASUNA



Unamuno. Bergarak eman duen futbolistarik onenetakoa.

Bergarak eman duen futbolistarik onenetako bat duzue bi argazki hauetan ageri dena, Victorio Unamuno. *Victorio Unamuno Ibarzabal* Bergaran jaio zen 1909ko maiatzaren 21ean. 1924ean Bergarako *Aurrera* taldean jokatzen hasi zen eta 1928an *Alavesera* joan zen. Hurrengo urtean *Bilboko Athletic*-ek fitxatu zuen eta bertan jardun zuen 6 urtez, tarte horretan bai kopa eta bai liga irabazi zituelarik.

1933-34ean, Athletic-ek *Betisi* utzi zion Unamuno eta han ere ligako txapeldun izan zen. Sevillan bi urte egin ondoren berriz Athletic-era bueltatu zen eta bertan jokatu zuen 41-42 denboraldian erretiratu zen arte, nahiz eta handik 3 urtetara *Eibarrek* eskatuta bertan zenbait partiduko jokatu zituen. Berak Athletic-en utzitako lekua *Telmo Zarrak* beteko zuen. 1989an hil zen 79 urte zituela.

Ezkerreko argazkia, erretiratu zenean eskeini zioten omenaldikoa da: lehen mailako euskal jokalarien selekzio batek jokatu zuen Athletic-en kontra *San Mamesen*. Erretratuan *Marcelino Agirrezendoia* eta *Isidro Alberdi* ageri dira Victoriori *Or-konponeko* enblema ematen.

Estepan Plazaola
Argazkia: *Isidro Alberdi*



Kirol Moda
SURF

AISOR

Rip Curl , Town country, Quick Silver, O'Neill

Bidekurutzeta 7 Tfnoa: 76 04 10 BERGARA



ETXEBIZITZA

- Pisia salgai Koldo Elizalde 20an. Deitu gaueko 8etatik aurrera 764252
- Pisia salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Pisu txiki edo buardilla bat hartuko nuke a-lokagailuan. 763270
- Pisia salgai; garaje eta guzti. Tfnoa: 763911.
- Baserri bat hartuko genuke alokairuan. Tfnoa: 763431.
- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.

LANA

- Uberan neska euskaldun bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 764149
- Neska euskaldun bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 765190. Gaueko 8etatik aurrera.
- Neska euskaldun bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 760257. 7-1eta 4.30-8.
- Arratsaldez lana egingo nuke etxeko lanak egiten edo umeak zaintzen. Deitu: 765482
- Produzio saileko injeniero-tekniko batek lan egingo luke. Tfnoa:

761913.

- Neska euskaldun bat behar dut haurrak zaintzeko. Deitu: 761852 edo 765261.
- Mutil batek furgoneta batekin errekauek egiten lan egingo luke. Deitu: 742063.
- Kontabilitatea eramango duen pertsona bat behar da. Deitu:

SALDU-EROSI

- Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 862071era.
- Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorea, 3 pulgadako disketera, 30 joku eta oso merke. Tfnoa: 7625 12
- Karrerako bizikleta bat mendiko bizikleta

batengatik trukatuko nuke. Deitu: 763269.

- Siberian-husky's arrazako txakurkumeak salgai. Deitu: 761479
- 3 pertsonentzako iglu kanping-denda berria salgai. Deitu: 763495
- Karabana berri-berria salgai 5 pertso-nentza-ko abanzaeta guzti. Deitu: 761388.
- Parapente STROM-25 berri-berria salgai. Deitu: 763738.
- Skate-ko patinete berri-berria salgai. Tabla Hard-Times, ejaek Gold-Wine eta erruberak Mini-Rat. Deitu: 762682.

Hildakoak

Dolores Llano Nieto
irailak 26an
Maria Beitia Bikuña
irailak 27an
Jose Mari Ugarte Beitia
irailak 29an
Justina Gallastegi Txintxurreta
irailak 30an

Jaiotakoak

Julen Mendizabal Arias
irailak 24an
Mireia Iturraspe Guillen
irailak 29an
Gorka Guisado Pagadizabal
urriak 1ean
Angel Gambra Garcia
urriak 2an

AUTOPULLMANS ARABA Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU



**FIORINO
ACTIVA
DIESEL FURGOIA**

1.697 cm. kubiko
60 zaldi
2,7 m. kubiko
470 karga erabilgarria

**1.120.000 pzta.
Matrikulatuta**

ERAKUSKETA:
Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:
Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi **FIAT**

ZERBITZU OFIZIALA



ASEGURU ARTEKARIAK

- ✓ Etxeko arrisku askotarakoa
- ✓ Garraioak
- ✓ Autoak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Bulegoak
- ✓ Pentsioetarako planak
- ✓ Istripuak
- ✓ Subsidioa
- ✓ Komertzioak
- ✓ e.a.

D. Fleming 3, BERGARA TFNOA: 76 15 24

BERGARA Kalea 2, 1. DONOSTIA